



**Ebazpena, 2021eko maiatzaren 6koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena. Honen bidez, 2021/2022 ikasturtean IRALEko irakastegietako 15 lanpostu zerbitzu-eginkizunen edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenaren bidez betetzeko deialdia egiten duena.**

IRALE programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan, unibertsitateaz besteko ikastetxe publiko eta pribatuetan, lanean ari diren irakasleak euskalduntzea edota beren euskaramaila, hitzez zein idatziz, hobetzea. Azken helburua, nolana ere, honako hau da: irakasle horien berariazko hizkuntza-prestakuntza lortzea, legez eskatzen den trebeziak eta gaitasunak euskara edo euskaraz irakatsi ahal izan dezaten.

Bost irakastegi ditu horretarako, besteak beste, IRALE programak. Batez ere goren mailako ikastaro-atalez arduratzen dira irakastegiok. Irakastegi horiek Hezkuntza Sailaren mende daude eta, bertan, IRALE programaren barruko ekintzak garaiz eta zuzen bideratzeko behar diren neurriak hartu ohi ditu Hezkuntza Sailak.

Deialdi honen xedea IRALEko irakastegietako 15 lanpostu betetzea da 2021/2022 ikasturterako.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Honako hauetan arautzen da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikuluan (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle

**Resolución de 6 de mayo de 2021, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se convocan 15 puestos en Centros de Capacitación idiomática de IRALE, para su cobertura en régimen de comisión de servicios o asignación provisional, en su caso, durante el curso académico 2021/2022.**

El objetivo del programa IRALE es euskaldunizar y/o alfabetizar al profesorado que ejerce la docencia en centros de enseñanza de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El objetivo final, en todo caso, es el de conseguir la formación lingüística específica de este profesorado, para que con la destreza y competencia legalmente exigida puedan enseñar euskera o en euskera.

El programa IRALE cuenta para ello, entre otros medios, con cinco centros de capacitación idiomática, que prioritariamente atienden a los módulos finales. Dichos centros dependen del Departamento de Educación, que establece los medios necesarios para garantizar la correcta y puntual ejecución de las actividades previstas en dicho programa.

La presente convocatoria tiene por objeto cubrir 15 puestos en los Centros de Capacitación idiomática de IRALE para el curso 2021/2022.

La comisión de servicios se encuentra configurada como una forma extraordinaria de desempeño de puestos de trabajo. Está regulada en el artículo 54 de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca, modificada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre y en el artículo 12 del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo



funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan. Araudi hau funtzionarioei aplikatuko zaie.

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzat jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

#### **EBAZTEN DUT:**

##### **Lehena.- Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea da hurrengo lanpostuak betetzea 2021/2022 ikasturterako:

Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta figura será de aplicación para el personal funcionario.

Respecto al personal laboral, el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, establece en su artículo 83 que la provisión de puestos y movilidad del personal laboral se realizará de conformidad con lo que establezcan los convenios colectivos que sean de aplicación y, en su defecto por el sistema de provisión de puestos y movilidad del personal funcionario de carrera.

Por ello, se estima adecuado que el personal laboral pueda participar en la presente convocatoria de provisión de puestos mediante la figura de la asignación provisional, la cual se asemeja al sistema de comisiones de servicio.

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

#### **RESUELVO:**

##### **Primero.- Objeto de la convocatoria.**

Es objeto de la presente convocatoria proveer los siguientes puestos para el curso escolar 2021/2022:



- Artazugoikoko irakastegian: 2 irakasle lanpostu.
  - Dolaretxeko irakastegian: 3 irakasle lanpostu.
  - Donostiako IRALE irakastegian: 4 irakasle lanpostu.
  - Gasteizko IRALE irakastegian: 5 irakasle lanpostu.
  - Eibarko IRALE irakastegian: irakasle lanpostu 1.
- Centro Artazugoiko: 2 puestos de profesora/profesor.
  - Centro Dolaretxe: 3 puestos de profesora/profesor.
  - Centro IRALE de Donostia: 4 puestos de profesora/profesor.
  - Centro IRALE de Gasteiz: 5 puestos de profesora/profesor.
  - Centro IRALE de Eibar: 1 puesto de profesora/profesor.
- a) Funtzionario eta praktiketako funtzionarioen kasuan, zerbitzu-eginkizunean beteko dira lanpostuak.
- a) En el caso de personal funcionario, o de personal funcionario en prácticas, el puesto se proveerá mediante comisión de servicios.
- b) Lan-kontratudun langileen kasuan, behin-behineko esleipenaz beteko dira.
- b) En el caso de personal laboral, el puesto se proveerá por asignación provisional.

**Bigarrena.- Eskakizunak, bazterketak eta uko egiteak.**

**Segundo.- Requisitos, exclusiones y renunciias.**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako karrerako funtzionario izatea, eskatutako lanpostuaren arabera.
- a) Ser personal funcionario de carrera de los cuerpos de Enseñanza no Universitaria la Comunidad Autónoma del País Vasco que corresponda en función del puesto solicitado.
- b) Aipatutako mailetako lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dutè.
- b) También podrá participar el personal docente con contrato laboral fijo de los citados niveles.
- c) Orobat, parte hartu ahal izango dute praktiketako funtzionarioek eta bitarteko funtzionarioek, baina lehentasuna izango dute karrerako funtzionarioek nahiz lan-kontratu finkoa duten langileek.
- c) Asimismo, podrá participar el personal funcionario en prácticas y el personal funcionario interino, si bien tendrá prioridad el personal funcionario de carrera, así como el personal contratado laboral de carácter fijo.
- d) Eskatera aurkezten denean, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren
- d) Encontrarse en situación de servicio activo en un centro público dependiente del Departamento de Educación en



erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.

la fecha de realización de la solicitud o en alguna de las situaciones administrativas que conllevan reserva de puesto, excepto la suspensión de funciones.

- e) Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.
- f) Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, deialdi honetan deitutakoez, 2021/2022 ikasturterako, bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.
- g) Deialdi honetatik kanpo geratzen dira 2021/2022 ikasturterako IRALE programarako liberatuta egongo direnak.
- h) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2021/2022 ikasturterako luzatzeari uko egin dioten pertsonak, ezingo dute ukoaren xede den lanpostua aukeratu.
- i) Behin zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleituta, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea bukatu arte.
- e) Asimismo podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de esta convocatoria, quienes se encuentren en situación de servicios especiales o situación de excedencia voluntaria, siempre que hubieran cumplido el plazo mínimo de permanencia en la misma.
- f) No haber sido objeto de nombramiento en comisión de servicios o asignación provisional, para el curso 2021/2022, para otro puesto distinto a los convocados en la presente convocatoria, a la fecha de la publicación de esta Resolución.
- g) Quedan excluidos de la presente convocatoria quienes vayan a estar liberados por el programa IRALE para el curso escolar 2021/2022.
- h) Aquellas personas que hayan renunciado a la prórroga, para el curso 2021/2022, de la comisión de servicios o asignación provisional adjudicada en cursos anteriores, no podrán optar al puesto objeto de la renuncia.
- i) Una vez adjudicada la comisión de servicios o asignación provisional no se podrá renunciar a ella, hasta finalizar el curso escolar objeto de la presente convocatoria.



- j) Hautagaiek eskatutako lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute deialdi honen argitalpena egin aurretik. Kasu honetan hezkuntzako bigarren HE behar da, edo baliokidea, Europako Erreferentzia Esparruaren arabera.

- j) Las personas candidatas deberán tener acreditado el perfil lingüístico requerido en el puesto que soliciten con anterioridad a la fecha de publicación de esta convocatoria. En este caso, se solicita el PL2 de Educación u otro equivalente según el marco europeo de referencia.

### Hirugarrena.- Eskabideak formalizatzeko eta aurkezteko epeak.

- a) Eskabidea formalizatzea.

Hautagaiek IRAKASLEGUNEA atariaren bidez (<https://irakaslegunea.euskadi.eus>) aurkeztu beharko dute eskabidea, "Zerbitzu-eginkizunak: IRALE" bannerretik, eta beharrezkoa izango da eskatzailea aldeztu aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea, halakorik badago).

Eskaera kopurua:

Lanpostu bat baino gehiago eskatuz gero (destinoko lekua), lehentasun-ordenaren arabera ordenatu beharko dira, eta lanpostu guztiak eskaera berean eskatu beharko dira, lanpostuaren izena aipatuz.

- b) Epea

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 13n bukatuko da, egun hori barne.

Eskariak lehentasun-irizpideen arabera egongo dira ordenatuta. Lanpostuak banan-banan eskatu beharko dira, lanpostuaren destinoa zehaztuta.

- c) Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

### Tercero.- Formalización de solicitudes y plazo de presentación.

- a) Formalización de las solicitudes

Las personas candidatas deberán presentar su solicitud a través del portal IRAKASLEGUNEA (<https://irakaslegunea.euskadi.eus>) desde el banner: "Comisiones de servicios: IRALE", y será necesaria la identificación previa (DNI/NIE + Contraseña, o usuario de XLNets si ya se dispone) de la persona solicitante.

Nº de solicitudes:

En el caso de solicitar varios puestos (lugar de destino), deberán estar ordenados por un orden de preferencia y todos los puestos deberán solicitarse en la misma solicitud, haciendo referencia a la denominación del puesto.

- b) Plazo

El plazo para presentar las solicitudes finalizará el 13 de mayo de 2021, inclusive.

Deberá solicitarse cada plaza individualmente, con expresión del destino seleccionado e irán ordenadas conforme a un criterio de preferencia.

- c) Documentación preceptiva a presentar junto con la solicitud.



Eskabideak ondokoarekin batera aurkeztu beharko dira:

- **Eskatutako lanposturako betekizun espezifikoak:** Haiek egiaztatzeko dokumentazioa.

Administrazioaren eskura ez daudenak alegatu egin beharko dira, eta ziurtagiri bidez aurkeztu.

- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztagiri ofizialak I. Eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Administrazioan behar bezala egiaztatuta dauden merezimenduak alegatu egin beharko dira.

Administrazioaren eskura ez daudenak alegatu egin beharko dira, eta ziurtagiri bidez aurkeztu.

Eskabidearekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta dokumentazioan jaso arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere.

- **Proposamen didaktikoa:** Hautagaiek bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko memoria bat aurkeztu eta defendatu beharko dute, II. Eranskinean adierazitakoaren arabera.

Proposamenean bertan ezingo dira hautagaiaren izen-abizenak idatzi, ezta haren beste

Las solicitudes deberán ir acompañadas de:

- **Requisitos específicos para el puesto solicitado:** Documentación acreditativa de los mismos.

Los que no estén a disposición de la Administración deberán ser alegados y presentados mediante certificado.

- **Méritos alegados:** Documentación acreditativa oficial, conforme a las previsiones que se detallan en el Anexo I.

Los méritos que ya estén debidamente acreditados en la administración deberán ser alegados.

Los que no estén a disposición de la Administración deberán ser alegados y presentados mediante certificado.

No serán valorados los méritos no alegados con la solicitud, ni aquellos que, figurando en la misma, no sean debidamente acreditados.

- **Propuesta didáctica:** Las personas candidatas deberán presentar una propuesta didáctica sobre las funciones y el trabajo a desempeñar, conforme a lo indicado en el Anexo II, que deberán defender posteriormente.

En la propia propuesta no se podrán escribir el nombre y



identifikazio-daturik ere.  
(gehienez 10 orrikoa alde batetik,  
tarte bikoitza eta 12ko letra  
tamainarekin).

Lanpostu bat baino gehiago  
eskatuz gero, norberaren  
lehenetsuen arabera ordenatuko  
dira, zentroaren izena zehaztuta.

apellidos de la persona  
candidata, ni ningún otro dato  
identificativo de la misma.  
(máximo 10 folios por una cara  
a doble espacio y tamaño de letra  
12).

En caso de solicitar más de un  
puesto, éstos irán ordenados  
conforme a un criterio de  
preferencia, especificando el  
centro de destino.

#### Laugarrena.- Balorazio-baremoa.

- a) Izangaien merezimenduak, proposamen didaktikoak eta horien defentsa deialdi honen I. Eranskinean ezarritako balorazio-baremoaren arabera puntuatuko dira, eta gehienez 22 puntu emango dira. Deialdi-ebazpen hau argitaratzen den eguna baino lehen egindako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.
- b) Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

#### Bosgarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak:

- a) Eskatzaileak eskatutako lanpostuen eskakizunetara egokitzen direla egiaztatzea. Hau

#### Cuarto.- Baremo de valoración.

- a) Los méritos de las personas candidatas, las propuestas didácticas y la defensa de las mismas se puntuarán de acuerdo con los criterios de valoración publicados en el Anexo I de esta convocatoria, siendo el total máximo de 22 puntos. Únicamente serán valorables los méritos perfeccionados con anterioridad a la fecha de la publicación de la presente Resolución de convocatoria, y debidamente acreditados.
- b) En caso de que se produjesen empates en el total de las puntuaciones, estos se resolverán atendiendo sucesivamente a la mayor puntuación en cada uno de los apartados del baremo, conforme al orden establecido en el mismo.

#### Quinto.- Fases del proceso de valoración:

- a) Comprobación de que las personas candidatas cumplen los requisitos de participación. Esta comprobación podrá llevarse a



Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek egin dezakete.

cabo por las Delegaciones Territoriales de Educación.

- |   |  |
|---|--|
| <p>b) Proposamenen balorazioa. Atal honetan gutxienez 2 puntu lortu behar da hurrengo fasera pasatzeko.</p> <p>c) Merituen balorazioa: Aurreko fasean jarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duen hautagaiari ez zaio atal hau baloratuko.</p> <p>d) Aurkeztutako proposamenen ahozko defentsa. Gutxieneko puntuazioa lortu behar da hautaketa prozesuan aurrera jarraitzeko (3 puntu).</p> | <p>b) Valoración de las Propuestas. Para pasar a la siguiente fase es necesario obtener al menos 2 puntos.</p> <p>c) Valoración de Méritos. No se valorarán los méritos a quienes no hayan obtenido la puntuación mínima exigida para la propuesta.</p> <p>d) Defensa oral de las Propuestas. Para continuar en el proceso es necesario obtener al menos 3 puntos.</p> |
|---|--|

#### Seigarrena.- Balorazio Batzordea.

#### Sexto.- Comisión de Valoración.

- |  |  |
|--|--|
| <p>a) Balorazio Batzordea sortuko da, eta hauek izango dira kideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzordeburua: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria, edo haren ordezkoa.</li> </ul> </li> <li>▪ Bokalak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Zerbitzuaren arduraduna, edo haren ordezkoa.</li> <li>- IRALERen irakastegietako bi zuzendari.</li> <li>-IRALE programaren arduradun teknikoa.</li> </ul> </li> <li>▪ Idazkaria:</li> </ul> | <p>a) Se creará una Comisión de Valoración integrada por los siguientes miembros:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Presidente/a: <ul style="list-style-type: none"> <li>- La Directora de Aprendizaje e Innovación Educativa, o persona en quien delegue.</li> </ul> </li> <li>▪ Vocales: <ul style="list-style-type: none"> <li>- La persona Responsable del Servicio de Euskera, o persona en quien delegue.</li> <li>- Dos Directores/as de centros de IRALE.</li> <li>- Responsable Técnico/a del programa IRALE.</li> </ul> </li> <li>▪ Secretario o secretaria:</li> </ul> |
|--|--|



- Langileak Kudeatzeko teknikari bat hitzarekin baina botorik gabe,
  - Un/a Técnico/a de Gestión de Personal con voz, pero sin voto.
- b) Balorazio Batzordeak laguntzaile teknikoen laguntza izan dezake irakasle-lanpostuetarako, hala nola, IRALEko ikastetxeetako beste zuzendari batzuen, proposamen didaktikoak baloratzen lagunduko baitute.
- b) La Comisión de Valoración podrá contar con la asistencia de ayudantes técnicos para los puestos de profesora/profesor, tales como los/as otros/as directores de centros de IRALE que colaborarán en la valoración de las propuestas didácticas.
- c) Adituak diren aholkulari teknikoak izan ahalko ditu Balorazio Batzordeak memoriak baloratzeko aipatutako batzordeak zehaztutako irizpideen arabera. Aholkulariok beren espezialitate teknikoak lantzerantz mugatuko dira, eta arlo horiei dagokienean soilik lan egingo dute Balorazio Batzordearekin.
- c) La Comisión de Valoración podrá contar con personal asesor técnico experto para la valoración de las memorias, conforme a los criterios que dicha Comisión determine. Dicho personal asesor se limitará al ejercicio de sus especialidades técnicas, en base exclusivamente a las cuales colaborarán con la Comisión de valoración.
- d) Era berean, sektorean ordezkari nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da Balioespen Batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.
- d) Asimismo, la Comisión contará con la presencia de un Delegado o una Delegada de cada Central sindical con representación suficiente en el sector, con voz, pero sin voto.
- e) Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak balorazio batzordeak baloratuko ditu.
- e) Las solicitudes que cumplan con los requisitos exigidos en esta convocatoria y que hayan sido presentadas en tiempo y forma serán valoradas por la Comisión de Valoración.

#### Zazpigarrena.- Ebazpena.

- a) **Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.**

Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzordearen Lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen

#### Séptimo.- Resolución.

- a) **Resolución provisional y reclamaciones.**

Una vez realizado el proceso de valoración, la presidencia de la Comisión de Valoración remitirá a la Directora de Gestión de



ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazio osoak eta atalkakoak ere azalduko dira.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da:  
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

#### b) Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren, edo erreklamaziorik ez badago, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du, hautagai bakoitzari emandako azken balorazioak adierazita, bai eta hautatutako pertsonen, baztertutako en eta hutsik gera daitezkeen lanpostuen behin betiko zerrenda ere. Deitutako lanpostuak ezin izango dira bete gabe utzi, baldin eta hautagaiek baldintza guztiak betetzen badituzte, balorazio-baremoan eskatzen den gutxieneko puntuazioa barne.

Behin-betiko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da:  
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>

Personal su propuesta de resolución, al efecto de que esta última adopte la Resolución Provisional de la convocatoria con el personal admitido, excluido y la puntuación total y desglosada otorgada a las correspondientes candidaturas.

La Resolución Provisional se hará pública en la página web del Departamento de Educación: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>

Se abrirá un plazo de tres días hábiles para efectuar reclamaciones.

#### b) Resolución definitiva.

Una vez analizadas las posibles reclamaciones o si no las hubiera, la Directora de Gestión de Personal hará pública la Resolución definitiva de la convocatoria con expresión de las valoraciones finales otorgadas a cada una de las personas candidatas, así como la relación definitiva de las personas seleccionadas, de las excluidas y de los puestos que pudieran resultar desiertos. No podrán declararse desiertos los puestos convocados cuando las personas candidatas cumplan todos los requisitos de los mismos, incluida la puntuación mínima exigida en el baremo de valoración.

Dicha Resolución se publicará en la página web del Departamento de Educación: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>



o-vasco/departamento-  
educacion/

Behin betiko Ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Contra la Resolución definitiva podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación.

**Zortzigarrena.- Izendapena eta luzapenak.**

- a) Aukeratutako izangaiei 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte emango zaie lanpostua, betiere ikasturtean zehar titularra berriro lanean hasten ez bada.
- b) Hautatutako pertsonak lanean hastea honako hauek baldintzatuko dute: SARS-CoV-2ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaerak, infekzioen hedapenaren geldotze-mailak eta arlo horretako agintari eskudunek ezarritako neurriek.

Inguruabar horiek ez badute aukerarik ematen deialdi honen behin betiko ebazpena betearazteko, edo gorabehera horiek zerbitzu-eginkizuna baliogabetzea eragiten badute ikasturtea hasi ondoren, esleipedunek lehentasuna izango dute zerbitzu-eginkizun horren hurrengo deialdietan.

- c) Zerbitzu-eginkizunen emakida bertan behera geratuko da, baldin eta lekualdatze-lehiaketan arauz bete direlako edo lanpostuari

**Octavo.- Nombramiento y prórrogas.**

- a) Las personas seleccionadas será nombradas en el puesto correspondiente hasta la finalización del curso escolar 2021/2022, salvo que durante el curso se produzca la reincorporación de la persona titular.
- b) Se condiciona la incorporación de las personas seleccionadas a la evolución de la situación epidemiológica y de contención de la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, así como a las medidas que dicten las autoridades competentes en la materia.

Si tales circunstancias no permitieran la ejecución de la resolución definitiva de esta convocatoria, o motivaran la revocación de la comisión de servicios una vez iniciado el curso, las personas adjudicatarias tendrán preferencia en las sucesivas convocatorias de la misma.

- c) La concesión de las comisiones de servicios quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización



dagokion hornitzeko moduagatik lanpostu hutsik ez badago. Era berean, bertan behera geratuko da lanpostuaren titularra itzultzen bada edo erregelamenduzko beste edozein estaldura ematen bazaio.

efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto. También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

- d) Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badute praktikak bete deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.
- e) Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.
- f) Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte betetzeko.
- g) Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako
- d) Aquellas personas a las que les sean adjudicadas las comisiones de servicios o asignaciones provisionales decaerán de las mismas en el caso de que sean nombradas funcionarias en prácticas y no puedan desarrollar las mismas en el puesto adjudicado en virtud de esta convocatoria.
- e) En el caso de que la persona seleccionada se encontrara en una situación administrativa distinta a la del servicio activo, la adjudicación de la comisión de servicios o de la asignación provisional estará condicionada a su reingreso, que deberá producirse de manera inmediata y adjudicándosele simultáneamente la comisión de servicios o la asignación provisional. De no hacerlo así, decaerá en su derecho y se seleccionará a la siguiente persona con mayor puntuación.
- f) Al personal funcionario de carrera se le concederá una comisión de servicios para el desempeño de las referidas plazas hasta la finalización del curso escolar 2021/2022.
- g) Para el personal funcionario en prácticas la concesión efectiva de una comisión de servicios



funtzionario izan beharko dute  
 2021/2022 ikasturtean.

quedará subordinada a que  
 ostenten la condición de  
 funcionario de carrera en el curso  
 2021/2022.

- h) Lan-kontratadun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte.
- h) En el caso del personal laboral, la cobertura de las referidas plazas se efectuará mediante resolución de asignación provisional hasta la finalización del curso escolar 2021/2022.
- i) Halaber, ordezkapenentarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2021/2022 ikasturtearen amaierara arte.
- i) Asimismo, el personal interino o personal que se encuentre inscrito en las listas de personas candidatas a sustituciones que pudiera resultar seleccionado será nombrado en esa plaza hasta la finalización del curso escolar 2021/2022.
- j) Aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteentarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta lekualdatze-lehiaketan bidez betetzen ez badira.
- j) Una vez transcurrido este periodo, si la evaluación realizada por parte de la Administración Educativa ha sido positiva, la Directora de Gestión de Personal podrá prorrogar el nombramiento por sucesivos cursos escolares, según el procedimiento que se establezca al efecto y siempre que las plazas no sean cubiertas por concurso de traslados.

#### **Bederatzigarrena.- Ordezkapenen zerrenda.**

a) Gutxieneko puntuazioa atera arren lanposturik lortu ez dutenak berriazko poltsa batean sartuko dira, puntuazioaren araberako zerrenda batean. Poltsa horren helburua hau izango da: ebazpena eman ondoren hutsik gera litezkeen alor horretako lanpostuak betetzea.

#### **Noveno.- Lista de sustituciones.**

a) Aquellas personas que habiendo superado la puntuación mínima necesaria y no hubieran sido seleccionadas, pasarán a formar parte de una bolsa en función de la puntuación obtenida en la baremación de méritos, en cada uno de los puestos. Esta bolsa estará destinada a la cobertura de posibles vacantes que se produzcan con posterioridad a la resolución de esta convocatoria.



b) Aldi baterako ordezkapenentarako Hezkuntza sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak 19. artikuluan dioena hartuko da kontuan. Agindu horrek arautzen du EAEko unibertsitateaz aparteko herri-ikastetxeetako irakaspostuen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda nola kudeatu.

b) De cara a la cobertura de sustituciones de necesidades temporales se atiende a lo dispuesto en el artículo 19 de la Orden de 27 de agosto de 2012, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, por la que se aprueba la normativa sobre gestión de la lista de candidatos y candidatas para la cobertura de necesidades temporales de personal docente en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

#### Hamargarrena.- Ordainsariak.

Aukeratutako pertsonen zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetako lanpostuari dagokion ordainsariak jasoko dituzte.

#### Décimo.- Retribuciones.

Las personas seleccionadas percibirán las retribuciones correspondientes al puesto desempeñado en comisión de servicios o asignación provisional.

#### Hamaikagarrena.- Lan-baldintzak.

- a) Hautatutakoek destinoko zentroan ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dute. Pertsona hauei aplikatuko zaie Hezkuntza Saileko irakasleen lan-baldintzen gaineko indarrean dagoen araudia.
- b) Hautatutakoek ezin izango dute parte hartu ordu-liberazioa behar duten euskalduntzeko ikastaro luzeetan. Halaber, ordu-liberazioa suposatzen duten bestelako ikastaroetan, parte hartu ahal izateko, dagokion sailburuordetzaren berariazko baimena beharko da.

#### Undécimo.- Condiciones de trabajo.

- a) El personal seleccionado se sujetará al horario y calendario que tenga fijado el centro de destino. A este personal le será de aplicación la vigente normativa sobre condiciones de trabajo del personal docente del Departamento de Educación.
- b) Las personas seleccionadas no podrán participar en cursos de euskaldunización de larga duración que conlleven liberación horaria. Asimismo, tampoco podrán participar en otros cursos de formación que conlleven liberación horaria sin la autorización expresa de la Viceconsejería correspondiente.



### Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

- a) Hezkuntza Sailak jasotako datuak 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa eta 2/2004 Legean, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, ezarritakoaren arabera tratatuko dira.
- b) Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean ([www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/)) eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.
- c) Datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio:
- Langileen kudeaketa.
  - Arduraduna: langileen Kudeaketako Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
  - Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

### Decimosegundo.- Protección de datos de carácter personal.

- a) El Departamento de Educación tratará los datos obtenidos de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y en la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.
- b) Las personas solicitantes consienten expresamente a que sus datos de carácter personal sean tratados de la forma y objeto señalado en esta convocatoria, así como a su publicación en la página web del Departamento de Educación ([www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/)) y en el tablón de anuncios de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación, únicamente en relación con los trámites propios de la convocatoria.
- c) Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada:
- Gestión de personal.
  - Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.
  - Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.



- Legitimazioa:
  - Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua.
  - Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.
  - 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.
  - 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Hartzailak:
  - Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.
  - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean:
- Legitimación:
  - Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.
  - Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.
  - Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
  - Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Destinatarios:
  - Otros órganos de la Administración del Estado.
  - Otros órganos de la Comunidad Autónoma.
- Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.
- Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra



[www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml)

página web:  
[www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml)

- Araudia:
  - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
  - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).
- Normativa:
  - Reglamento General de Protección de Datos (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
  - Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).

### Hamahirugarrena.- Ordezko modura aplikatzeko araudia.

Prozedura gaitan ebazpen honetan arautu gabeko kasuetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

### Decimotercero.- Normativa de aplicación supletoria.

En lo no regulado por la presente Resolución en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**ERREKURTSOAK**

Bide Administratiboa bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, beti ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 legearen 121. artikuluan eta hurrengoek 112.1 artikuluekiko xedatutakoaren arabera.

**RECURSOS**

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes, en relación con el 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 6an.  
En Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2021.

Blanca María Guerrero Ocejo  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**  
**DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL**



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



## I. ERANSKINA

IRAKASLE LANPOSTUAK  
BETETZEKO BAREMOA

GUZTIRA: 22 puntu.

1. Proposamen didaktikoa:  
gehienez 4 puntu.

Gehienez 10 orrialdeko azalpen-lana egin behar da, alde batetik, tarte bikoitzean, eta letra-tamaina 12, lanpostuaren berariazko eginkizunez. Hautagaiek puntu 2 atera beharko dute gutxienez.

2. Proposamenaren ahozko  
defentsa: gehienez 6 puntu.

Proposamenean %50eko puntuazioa ateratakoegi egingo zaie dei proposamen didaktikoaren defentsa egiteko. Hautaketan aurrera egiteko gutxienez 3 puntu atera beharko da atal honetan.

## 3. Eskarmentua: gehienez 4 puntu.

Lortu nahi den lanpostuarekin zerikusia duten alorretan hautagaiak duen eskarmentua:

- IRALE irakastegietan: 0,20 hilabete bakoitzeko.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetan: irakasgaia euskara izan denean, 0,10 hilabete bakoitzeko eta beste hizkuntzen kasuan, 0,05.
- Euskaltegi Publikoetan: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko
- Euskaltegi homologatuetan: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

## ANEXO I

BAREMO PARA LA COBERTURA  
DE LOS PUESTOS DE  
PROFESOR/A

TOTAL MÁXIMO: 22 puntos

1. Propuesta didáctica: máximo 4  
puntos

Trabajo de 10 hojas de extensión como máximo, por una cara a doble espacio y tamaño de letra 12, sobre las funciones específicas del puesto. Será necesario que los candidatos/as obtengan como mínimo 2 puntos en la propuesta.

2. Defensa oral de la propuesta:  
máximo 6 puntos.

Solo se convocará a la entrevista a quienes alcancen el 50% de puntuación en la propuesta didáctica. Para poder continuar en el proceso será necesario que los candidatos/as obtengan como mínimo 3 puntos en este apartado.

## 3. Experiencia: máximo 4 puntos

Experiencia en puestos relacionados con la plaza a la que se opta:

- En centros de IRALE: 0,20 puntos por mes
- En Escuelas Oficiales de Idiomas: 0,10 cuando la asignatura haya sido euskera, y 0,05 en el caso de otras lenguas.
- En Euskaltegis Públicos: 0,10 puntos por mes
- En Euskaltegis homologados: 0,05 puntos por mes.



#### 4. Merezimendu akademikoak: gehenez 3 puntu.

Lortu nahi den lanpostuarekin zerikusia duten alorretan:

- Doktore-titulua: 1,5 puntu
- Masterraren unibertsitate-titulua (gutxienez, 60 kreditu): 1 puntu
- Graduaren unibertsitate-titulua edo baliokidea: 1 puntu
- Hizkuntzak:
  - Euskara C2 titulua: 0,75 puntu
  - Bestelako hizkuntzak: C2 (0,50 puntu), C1 (0,30 puntu), B2 (0,15 puntu)

#### 5. Prestakuntza eta hobekuntza: gehenez 3 puntu

Lanpostuarekin zerikusia duten 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak, ziurtagiri ofizialen bidez akreditatuak edo Hezkuntza Sailak homologatutakoak, baloratuko dira. Ordukopurua adierazita ez duten egiaztagiriak ez dira baloratuko.

Emandakoa: 0,20 puntu, 10 orduko  
Jasotakoa:

- 10-30 ordutako ikastaroak: 0,20 puntu.
- 31-50 ordutako ikastaroak: 0,40 puntu.
- 51 baino ordu gehiago: 0,60 puntu

#### 4. Méritos académicos: máximo 3 puntos.

Se valorarán los méritos académicos que tengan relación con el puesto al que se opta:

- Título de doctorado: 1,5 puntos
- Título universitario de Master (mínimo, 60 créditos): 1 punto
- Título universitario de Grado o equivalente: 1 punto
- Idiomas:
  - Título C2 euskera: 0,75 puntos
  - Otros idiomas: C2 (0,50 puntos), C1 (0,30 puntos), B2 (0,15 puntos)

#### 5. Formación y perfeccionamiento: máximo 3 puntos

Se valorarán los cursos de 10 o más horas que tengan relación con los puestos solicitados, debidamente acreditados mediante certificados oficiales, y los homologados por el Departamento de Educación. No se valorarán los que no contengan indicación expresa del número de horas.

Formación impartida: Por cada unidad de 10 horas: 0,20 puntos.

Formación recibida:

- cursos de 10 a 30 horas: 0,20 puntos.
- cursos de 31 a 50 horas: 0,40 puntos.
- cursos de más de 51 horas: 0,60 puntos.



## 6. Argitalpenak: gehienez 2 puntu

Soilik baloratuko dira eskatutako lanpostuaren lan arloarekin zerikusia dutenak. Honela balioetsiko dira:

- Egile bakarreko artikuluak: 0,25 puntu.
- Egile bakarreko liburuak (inprimatuak zein digitalak) eta bideoak: 0,75 puntu.
- Zenbait egileko liburuak (inprimatuak zein digitalak) eta bideoak: 0,25 puntu.

Dagokion alearen bidez egiaztatuko da. Ez da baloratuko argitalpen, artikulu, edo bestelakorik lanpostuaren jardunean egin badira.

Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan—(abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatutakoa) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.

## 6. Publicaciones: máximo 2 puntos.

Solamente se valorarán las publicaciones directamente relacionadas con el puesto que se solicita.

- Artículos de autoría única: 0,25 puntos
- Libros (impresos o digitales) y vídeos de autoría única: 0,75 puntos
- Libros (impresos o digitales) y vídeos: en coautoría o grupo: 0,25 puntos

Se acreditará mediante el ejemplar correspondiente. No se valorarán las publicaciones, artículos, u otros realizados en el desempeño del puesto.

Aquellas publicaciones que, estando obligadas a consignar el ISBN en virtud de lo dispuesto por el Decreto 2984/1972, de 2 de noviembre, modificado por el Real Decreto 2063/2008 de 12 de diciembre o, en su caso, ISSN o ISMN, carezcan de ellos, no serán valoradas, así como aquellas en las que la autora o el autor sea también la editora o el editor de las mismas.



## II. ERANSKINA

**PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**  
(Gehenez 10 ORRIALDE, tarte  
bikoitzean eta 12ko letra-tamainan)

EGILEA:

PROPOSAMENA ZER LANPOSTURI  
BURUZKOA DEN:

## ANEXO II

**PROPUESTA DIDÁCTICA**  
(Máximo 10 HOJAS POR UNA  
CARA, a doble espacio y tamaño de  
letra 12)

AUTOR/A:

PUESTO:

Proposamen didaktikoan bertan, ezin izango da egilearen izen-abizenik jarri, ezta datu pertsonalik.

En la propuesta didáctica no podrá constar el nombre de la persona que la ha redactado, ni ningún dato personal.

## 1) IRAKASLE LANPOSTUAK

a) Proposamen didaktikoak honako atalak izan beharko ditu:

- SARRERA
- HELBURUAK
- MARKO METODOLOGIKOA
- BALIABIDEAK
- EBALUAZIOA

b) Proposamen didaktikoa baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

- Ezinbestekoa: hizkuntza maila.
- Erabilitako oinarritzko kontzeptuetan argitasuna eta zehaztasuna.
- Proposamen didaktikoaren helburuak IRALE programak proposatutako edukietara egokitzea
- IRALE programari egin diezaiokeen ekarpena.

## 1) PUESTOS DE PROFESORA/PROFESOR

a) La propuesta didáctica debe incluir los siguientes apartados:

- INTRODUCCIÓN
- OBJETIVOS
- MARCO METODOLÓGICO
- MEDIOS
- EVALUACIÓN

b) Criterios de valoración de la propuesta didáctica:

- Imprescindible: nivel lingüístico.
- Claridad y exactitud en los conceptos básicos empleados.
- Adaptación de los objetivos de la Propuesta didáctica a los contenidos propuestos por el programa IRALE.
- Aportación al programa IRALE.



- Metodologia aktiboak, parte-hartzaileak, edota teknologia berrien erabilera sustatzea.
- Baliabideen egokitasuna.
- Ebaluazio-irizpideen egokitasuna eta zehaztapena.

**c) Proposamen didaktikoaren ahozko defentsan kontuan hartuko diren irizpideak:**

- Hizkuntza maila.
- Komunikazio gaitasuna.
- Aurkezpenaren argitasuna eta zehaztasuna eta proposamen didaktikoarekiko koherentzia.
- IRALeren ezagutza.
- Bete beharreko funtzio eta eginkizunen ezagutza.
- Hautagaiak IRALE programari egin diezaiokeen ekarpena.

**OHARRA:** Proposamen didaktikoaren ahozko defentsa grabatua izango da.

- Fomentar el uso de metodologías activas, participativas y nuevas tecnologías.
- Pertinencia de los medios.
- Adecuación y concreción de los criterios de evaluación.

**c) Criterios para la valoración de la defensa oral de la propuesta didáctica:**

- Nivel lingüístico.
- Capacidad comunicativa.
- Claridad y precisión de la exposición, y coherencia de la misma respecto a la propuesta didáctica.
- Conocimiento de IRALE.
- Conocimiento de las funciones y trabajos a desempeñar.
- Aportación al programa IRALE del/de la candidato/a.

**NOTA:** La defensa oral de la propuesta didáctica será grabada.

